

ARRATZU. Hariztia eta kiwiak. Burdin aroko Gastiburuko Santutegia, eta XII. Mendeko San Tomas eliza. Donejakue Bidea eta BTT pistak.

Artzubitik Montolanera. Handik, gaurkolako egun argiz, begibistaz, Mundaka ere ikusten da.

Golako ibaia eta Arrola mendiaren tarteko ibar hau ortuariak hazteko ez ezik, adimena erretako ere toki emankorra dugu antza.

Nekazariak, artzainak, errementariak, musikariak, petrikiloak, kontalariak, bendajerak, politikariak, amak, aitak, seme-alabak ...Arratzun horiek guztiak eta gehiago daude. Euskalerriko beste edozein herritan ere, pentsatuko duzue. Baina, hemen, Bitoriano Gandiaga, Manu Leginetxe eta Joseba Lakarra dauzkagu. Hara, Adolfo Arejita bera ere bertora etorri zaigu! Eta beste bat, Juan Bautista Bilbao. Ezagutzen al duzue?. Batxi legez izenpetzen zituen bere idazlanak. 1887an jaio zen Arratzuko Elexalde auzoan. Hamaika urte ingururekin joan zen itsasora. Hasieran txo modura baina, geroago, hornikari edo maiordomo. Egunero, goizeko seiretan jagiten zen idazteko eta Euzkadi eta Napartarra egunkari abertzaleetara bidaltzen zituen bere bidaia kronikak. Kirikiñok irakurri eta egokitzen zituen bere testuak eta “Batxi honek hautsak daukoz” zihoen behin baino gehiagotan.

Hogeitazortzi uterekin hil zen. Mendatako, Albizko, alarguna eta hiru alaba utzi zituen. Mina aleman bat jo zuen bera zihoan itsasontziak eta mariñel bakarra salbatu zen orduko kronikek diotenez. Batxiren “Hau mundu arrano hau” Iñigo Aranbarrik eta Koldo Izagirrek egokitu zuten eta Arratzuko udaletxean aurkeztu zuten. Orduan, Bitoriano Gandiaga bera ere eduki genuen bertan beste batzuren artean.

Joseba, Arratzuar honek gazi-gozaok idazten dauz itsasotik. Aukeratu dodan pasarte hau, ez dakit ba, uste dot gatz puntuan dagoela: Savonatik idazten dau 1914ko otsailaren 12an:

“Kirikiñok osterara be esango deust andaluztu nazela, baina ez deust ardura, eta esan behar dot zer jazo jakon antzina, haize-ontziak ibiltzen ziranean, gure herriko mutil bati.

Heldu zan hona, eta gose zan, eta ikusi ebazan ostatu edo jatetxe baten hainbat gizon zeozer irunsten, zinta batlakoia zan gauza bat. Eta zer zan? Makarroiak neurritan saltzen ebazan etxe bat.

Hara: heltzen zan bat eta eskatuten ebazan honenbeste metro makarroi. Sartzen eutsien arilean legez batuta eukien makarroiaren puntua ahora, eta iruntsiz-iruntsiz joian jaubea neurtzen. Eta berak gura ebazan metroak irunsten ebazanean, zazt! Ugazabak ebagiten eban eskuan eukan makarroi hori, beste mahaikide bati osterat be sartzeko.

Eta hau ikusi ebanean, sartu zan gure herritar hori, eta ugazabak itaundu eutsan zenbat metro gura eban.

- Hogeit – erantzun eutsan beronek.

Hasi zan irunsten, eta hogeira heldu zanean ugazabak esan eutsan:

- Oraintxe daukazuz hogei egin-eginak barruan.
- Ebagizu ba- inotsan beronek, barruan eukanez, gero ordaindu barik ihesi egiteko ustez.
- Ekatzu ba dirua- inotsan ugazabak
- Zenbat da ba?
- Laurleko bi.
- Nik ez daukat hiru txakur baino – esan eban gureak.

Eta beste batzuk be irunsteke begira egozan eta larri, dirua eskuetan ebela, eta orduan, zer uste dozu, Kirikiño, egin ebela jatetxeko ugazabak?

Ziri-zara atzera atara euskotar gizajoari urdaitetik janda euki ebazan hogei metroak, eta gero berehala sartu atzera beste batzuei ahotik, bati bi, besteari bost... eta halan.”

Holako pasarte umoretsuak baina dramatikoago beste batzuk ere badakartza orrietan barrena Batxik. Itasoko hondotik azaleratu egin nahi izan dut halako egun garrantzitsuan. Zorionak Joseba eta segi euskararen alde lanean!

Arratzun, 2009ko maiatzaren 30ean
Dorleta Alberdi Aretxederreta